

# EGUNEKO ARRETA, ZAINZAILEAK ALDI BATERAKO ATSEDENA HAR DEZAN

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Eguneko arreta edo arreta okupazionala**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Eguneko zentro edo zerbitzuetara aldi baterako sartzea buruko gaixotasuna duten pertsonak, normalean familiako zainzaileek zaintzen dituztenak etxean ([2.5 fitxa](#)). Helburua da zainzaileak atsedenerako, aisialdirako eta bere burua zaintzeko denbora pertsonala izatea. Zainzaileak ere jo dezake zerbitzura, bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoelako (bajan dago, oportetara joan behar du...).

Aldi baterako prestazioa ematen den zentro edo eguneko zerbitzuari dagokion zerbitzua da eskaintzen dena.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

**Buru gaixotasuna duten pertsonen zainzaile nagusiak eta senideak**, atsedena behar dutenak.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Gaixotasun mentala duen pertsona eta zainzailea etxebizitza berean eta dagokion lurralde historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea.
- Gaixotasun mentala duten pertsonak eta zainzaileak eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan bizileku berean erroldatuta egotea.
- Eguneko zerbitzura edo atsedeen hartzeko egonaldia egingo den eguneko zentrora sartzeko baldintzak betetzea.
- Zainzailea eta gaixotasun mentala duen pertsona elkarrekin bizi direla egiaztatzea, zaintzaren

prestazioa justifikatzen bada Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

**Foru Aldundien ardura** da zerbitzua ematea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

## Informazio gehiago:

- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa Araban](#)
- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa Bizkaian](#)
- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)